

Artiga bilduma 3

Alex IBAÑEZ ETXEBERRIA
Itxaso MENDILUZE GONZALEZ
Urt ZUBIAURRE OTAMENDI
Maiden AIERDI SERRANO

**ALTZA HERRIKO FAMILIARI
BURUZKO IKERKETA
ETNOGRAFIKOA**



ALTZA
2000

artiga s.f. Labaki, lanberri, luberri.

artiga . f. Terreno roturado después de quemar la vegetación salvaje.

artiga f. Novale (terre défrichée).

Artiga XIV. eta XV. mendeetan Altza izendatzeko erabilitako izena
*Nombre con el que también se conocía Altza en los siglos XI V
y XV..*

Ikerketa hau Altzako Historia Mintegiak, Kutxa Fundazioaren eta
Donostia Kulturaren laguntzaz, eskainitako
“**Altzako Historia ikertzeko diru-laguntza**”-ren emaitza da.
Altzako Euskal Jaietan, 2000ko martxoaren 19an.

*El presente estudio es fruto de la "**Bolsa de Ayuda la Investigación
sobre Altza**" convocada por Altzako Historia Mintegia con la ayuda de
la Fundación Kutxa y Donostia Kultura.*

1.- Sarrera

Betidanik, atentzioa deitu izan digu Altza herriko sentimenduak Donostiarrei. Altzatarrak ez garenok, gazteak gutxienez, garapen basatiaren ondorioz sortutako Altza berria besterik ez dugu ezagutzen, eta inpresio horren arabera, Altza beste auzo berri bat, besterik ez zen guretzat.

Orain dela hamabost bat urte, aurreneko aldiz aditu nuenean "Altza ez da Donostia" leloa, nahiz eta atsegina izan, folklorismo hutsa iruditu zitzaidan. Bai, banekien Altza herri bezala existitu izan zela garai batean, baina gaur egun, ez genuen erroturik ikusten, ez genion gorputzarik ikusten. Inpresio hau, nire pertsonari eta ni bezalako beste askori aplikatzen diot, orain dela hamabost bat urte. Orduan zoritzarrez, ez zen existitzen Altzako Historia Mintegia, ezta Kasareseko Kultur Etxea, ezta beste ekimen asko ere.

Denbora aurrera joan ahala, nere ikuspegia gutxienez, aldatuz joan zen, eta gaur egun daukadan irudia eta besteei transmititzen saiatzen naizena, zeharo desberdina da. Aldaketa horren arrazoi edo informazio iturri nagusiak, bi izan dira. Alde

batetik Altzako Historia Mintegiak urte guzti hauetan eginiko lan ikaragarri serio eta aipagarria, eta bestetik, hurbilketa soila, apala. Hau da, Altzatik barrena paseatu, bere baserritarrekin hitzegin, eta nolabait ere, berdeskubritu, goian aipatutako 60garren eta 70garren hamarkadetako garapen basatiak, estalita utzi zuen Altza.

Une horretan izan zen, herri hori existitzen zela ohartu bezain laister, noiz konturatu ginen ere, desagertzera zihoala erremediorik gabe. Prozedura hori, ez da Altza herriari gertatzen ari zaion prozesu berezia, baizik eta mendebaldeko garatutako gizarte guztiei gertatzen ari zaien prozedura bat. Horrela, aintzinako gizarte herritarra zena, garapeneko gizarteak irensten du, bere berezitasun guztiekin, globalizazio bide batean. Hala ere, Altzako kasua, larriagoa izan liteke gure iritziz, gehienbat jasandako akulturazio prozedura ikaragarriagatik. Sufritutako aldaketa, hain larria eta hain gogorra izan zen epe labur batean, non Altzatar biztanleria pasatu izan zen urte gutxitan, bere buruaren jabe izatetik, ia elementu etnografiko bat izatera.

Testuinguru horretan, eta gure apaltasun osoz, ekimen hau bururatu zitzaigun egitea, hau da, Joxemiel Barandiaranen inkesta etnografikoa pasatzea. Ez ginen aurrenak izan hori pentsatzen, baino bai dirudienez egitasmoa aurrera ateratzen saiatu direnak. Badakigu teknika zaharra dela, eta bere fruituak gaur egungo gizartean ez dira berdinak, orain dela hogeitahogehamar urte

eginiko inkestekin alderatu ezker, baino besterik ez genuen eskura, eta gainera horrela laguntza lortzen genuen, gu ez bait ginen oso iaioak honelako lan motatan. Oso ezaguna den euskal etnografo batek esan zidan bezala, "Batzuk esaten dute zer egin beharko litzateke, beste batzuk berriz egiten dugu", eta gure ustetan arrazoa dauka, zeren egiten ari garen lana, ona edo txarra, garrantzitsua edo interes gabekoa, urte gutxi barru ezin izango da egin, gure berriemate aberasgarrienak, zoritzarrez, desagertzen ari bait dira.

Arazo horretaz kontzientziaturik, abiatu ginen denbora galdu gabe proiektu ekiteari. Horretarako, bi laguntzabide hartu genituen. Alde batetik, Altzako Historia Mintegiarekin harremanetan jarri ginen, 1999ko dirulaguntzen deialdian partehartzeko, eta bestetik Etniker Gipuzkoa taldeburu den Josetxo Zufiaurreri, kontseju eskatu genion.

Benetako lanari ekiteko berriz, bere ahalbidetasuna ikusi eta gero, azken pausu garrantzitsu bat geratzen zitzaigun, lantaldea osatzea. Horrelako lan batek dedikazio haundia behar du, eta horretarako zenbait lagun bildu behar ginela pentsatu genuen. Hasieratik, Alex Ibañez¹, Itxaso Mendiluze eta Urt Zubiaurre bildu ginen, baino beti pentsatuz, taldea zabaldu litzatekeela. Horrela

hasi ginen lana, baino aurreneko emaitzekin hitzaldi bat eman ondoren, Maider Aierdi altzatarra gehitu zitzaigun, taldeari sendotasun gehiago ematen².

Helburu orokorrak, Mintegiaren interesa, Etnikerren laguntza eta taldea osatua eduki eta gero, lana planifikatzeari egin genion. Hasteko, Etniker taldekoek esan zigutenez, lana haundiegia gerta liteke, 600 galdera alegia, eta komeniko litzatekeela, epigrafe bakar bati kaso egitea, eta saiatu alde hori sakontzen. Ahal izanez gero eta erantzunen arabera, lanak etorkizunik eduki zezakeen, baino horretarako garrantzitsua ikusten zen lorgarria izan zitekeen helburu batekin abiatu. Kasurako, proposatu ziguten Familia blokea egitea, 2000garren urterako Etniker taldeek prestatu behar zutena alegia. Era berean, azaldu ziguten, berez, herriaren kontzeptua modu zabal batean hartu behar zela, hau da, mugak ez zituzten udal eremuek markatzen, baizik eta hartueman historikoak. Horri esker, ikerketa honetan aurrerago ikusiko dugun bezala, Errenderiko lurretan aurkitzen dugun Bordazar baserria sartu ahal izan da.

¹ Hezkuntza Teoria eta Historia Saila, Euskal Herriko Unibertsitatea, Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea, Donostia, tspibeta@sc.ehu.es

² Jarraitzen gara irikiak kolaborazioetarako. Nahi izanez gero, mintegiarekin harremanetan jarri.

Lanaren egitura planifikatu ondoren, Altzako Historia Mintegiaren laguntzaren ordua iritsi zen. Beraiek onartu zuten proiektua, eta hasieratik bultzatu zuten. Bereziki, Anjel Calvok lagundu zigun informatzaileak bilatzen eta aurreneko pausuetan gurekin egon zen.

Hemendik aurrera, lan guztiaren merituak bi ardatzetan oinarritzen dira. Alde batetik elkarrizketatzaileengan, baserriz baserri joan diren Itxaso, Urt eta Maider, Euskal Herriko Unibertsitateko ikasle finengan eta bestetik, bere etxeetan jaso, onartu eta atenditu gaituzten altzatar guztiengan, hau da, Bordazar baserriko Juan Jose, Joakin eta Manuel Zapirain anaiak, Kastilluneko Estefanía Alkiza, Pilar Aduriz eta Joseba Alkiza, Akularreko Angel eta Miguel Angel Elizalde, Pelegriñeneko Jose Antonio Odriozola, Irasuenerako Asensio Sarriegi, Ilarregiko Jose Maria Arrieta, eta Txurdiñeneko M^a Aranzazu eta Rufino Elizalde. Batzuk, besteak baino informazio gehiago eman digute, baino guztiak umore onez eta borondate osoz egin digute kaso, guztiei, gure esker ona.

2.- Fitxa teknikoa


Lanaren hizkuntza behikularra euskera izan da. Bai elkarrizketak, bai lanaren erredakzio osoa, hizkuntza honetan egin da, era berean erakutsiz, Altzan euskeraz egin daitekellarik.

Elkarrizketatzaileak hiru izan dira, Itxaso Mendiluze eta Urt Zubiaurre andoaindarrak eta Maider Aierdi altzatarra, beraz euskalkiekin ez dugu inolako arazorik eduki, nahiz eta zenbait berriemaien euskera, gurea baino askosaz ere aberatsagoa izan.

Berriemaileak berriz, bi motatakoak izan dira. Alde batetik talde familiarak, hau da, baserri bateko zenbait belaunaldiko jendea, eta bestetik indibidualak. Guztira hamairu berriemaile eduki ditugu, eta hamairu horiek, zazpi baserrietan banatu dira, ondoko koadro eta mapan ikus daitekeenez.

<i>Baserria</i>	<i>Berriemailea</i>	<i>Jaiotze urtea</i>
<i>Bordazar</i>	Juan Jose Zapirain	1906
	Joakin Zapirain	1914
	Manuel Zapirain	1916
<i>Kastillun</i>	Estefanía Alkiza	1921
	Pilar Aduriz	1942
	Joseba Alkiza	1970
<i>Akular</i>	Angel Elizalde	1922
	Miguel Angel Elizalde	1952
<i>Txurdiñene</i>	M. Aranzazu Elizalde	1972
	Rufino Elizalde	1954
<i>Irasuene</i>	Asensio Sarriegi	1936
<i>Illarregi</i>	Jose María Arrieta	1950
<i>Pelegriñene</i>	José Antonio Odriozola	1957

ALTZA HERRIKO FAMILIARI BURUZKO IKERKETA ETNOGRAFIKOA



Altza herriko mapa. Berriemaileen baserrien kokapena

Epeari dagokionez, 1999ko urrian hasi, eta 2000ko otsailean bukatu. Hilabete hauetan, elkarrizketa guztiak egin dira. Jeneralean, aurretik pasatzen genizkien orri batean galdera guztiak, eta bigarren bilera batean, elkarrizketak grabatzen ziren. Hala ere Bordazarrekoek, idatziz bueltatzea eskatu ziguten ahalik eta informazio gehiago jarri ahal izateko.

Pasatu zen galdeketari buruz, esan behar da galdeketa nagusiaren barruko familiar dedikatutako atala dela. Atal honek bi zati ditu. Aurrena, *Familia* izenarekin ezagutzen dena, berez, 29 galderaz osatua dago. Barandiaranen galdeketa orijinalean I ataleko 105 gaderatik, 133 galdera arte. Bigarren zatiak *Atsedena eta garbitasuna* izena darama, eta hasieran II ataleko 15 eta 29 galderen artean. Aukeraketa hau egiteko Josetxo Zufiaurreri jarraitu diogu, bere "*Beasaini buruzko monografia etnografikoa*"-n³. Liburu honetan berak ere, egitura honi jarraitzen dio.

³ ZUFIAURRE, J.: *Beasaini buruzko monografia etnografikoa*, Beasaingo paperak Zk 7. Beasaingo Udala, 1998.

3.- Altzari buruzko ikerketa etnografikoa: Familia

Ikerketa honetan, berriemaile guztiei galdeketa guztia pasatzen zaie. Gero, jasotako erantzun guztiekin, joaten dira hutsuneak betetzen. Berez, ez dute guztiak berdina esan baino guztion artean esandako gauza guztiekin osatzen da galdeketa. Hona hemen galderak.

I-105. Zein hitz erabiltzen dira familia, ahaidetasuna eta senideak izendatzeko?

“Familia”, etxean bizi direnei zuzendua bada ere, ahaidetasunari “familikoak” esan ohi zaio, eta aldiz senideei “famili artekoak” eta zenbaitetan “senditarrak”.

I-106. Ahaidetasun mailak eta berauen izenak. Ahaideek gordetzen duten ordena zeremonia jakinetan, hala nola ezteietan, segizioetan, bataioetan haurra jasotzean. Doluaren iraupena eta dolu-ezaugarriak, ahaidetasun mailen arabera.

Familia kide gertukoenak izendatzeko honako izenak erabiltzen dira:

Aita "Aita" edo "Atta"

Ama "Ama"

Anai "Anaia"

Arreba "Arreba"

Ahizpa "Ahizpa"

Semea "Semia"

Alaba "Alaba"

Aitona "Aitona" edo "Attona"

Amona "Amona"

Horiek guztiak baserri berean bizi ohi direnez, "Familia" esaten zaie.

Izeba "Izeba"

Osaba "Osaba"

Ilobak "Ilobak" , berdin neska edo mutilei.

Suhia "Suia"

Erraina "Erraña"

Aitagarreba "Aitagarreba"

Amagarreba "Amagarreba"

Senarra "Senarra"

Alarguna "Alarguna"

Ez kongaia "Ez kongaia" berdin neska edo mutilei.

Nesakazahar "Neskazar"

Mutilzahar "Mutilzar"

Aitabitxia "Attapontekua"

Amabitxia "Amapontekua"

Semebitxia "Besotakoa"

Alaba Pontekoa "Besotakoa"



Pelegrinene baserriko Arrieta familia 1956. urtean

Zeremonia berezietan aldiz honako ordena mantentzen da:

Ezteietan: Aitabitxia beti izan ohi da emaztegaiaren aita eta amabitxia berriz senargaiaren ama. Dena den, bietakoren bat falta denean, gertuko beste famili kide batek hartzen du postua gehienetan baserrian

bertan bizi den anaia edo arreba zaharrenak izaten direlarik. Gaur egun ere antzeko gertatzen da.

Bataioei dagokienez aldiz, aiton amonak izaten dira lehenengo haurren aita eta amabitxiak eta ondorengoak aldiz aita eta amaren anai-arrebak zaharretik hasi eta gazteenera bitartean. Hauek, seme-alabatzat hartuko dituzte beren besoetakoak oinordekotzari dagokionean baldin eta seme-alabarik eduki ezean. Horretaz gain, besoetakoek gurusoek egitekorik badute edo eta gaitzik badute, beren etxeetan jasoko dituzte haurrak. Gaur egun ez da horrelako ordenamendu zehatzik mantentzen, baina gainerakoan antzekorik burutzen da.

Hiletetak zirenean berriz, hildakoa etxean izaten zen egun batez inguruko baserrietakoak nahiz sendiak ikusi zezaten bide batez mezatarako dirua ekartzeko ohitura zutelarik, garai hartan, duro bat izaten zena. Iluntze aldera Errosarioa errezatzen zen. Ondorengo eguneko segizioan, gehienetan gertukoak biltzen ziren, eta behin elizakoak bukatuta, berriz ere etxean biltzen ziren gonbidatuei jatekorik eta edatekorik eskainiaz. Egun, segizioa arras bestekoa gertatzen da, eta hiletak egiteko garaian izaten dira gorputza aurrean dela egiten

direnak eta beste batzuek aldiz gorpua ehortzia dela burutuak. Lehenago mantentzen zen dolua ere egun galdua da gainerako ohiturekin bat.

- I-107. Familia izena edo deitura: sorrera eta ondorengoei ematea. Bataio izenik ohikoenak. Normalean, nola izendatzen dira pertsonak? Bataio izena eta ondoren etxekoa esanez? Izengoitiz? Emakume ezkonduak gordetzen al du bere jatorrizko deitura?

Egun ofizialki pertsona bakoitzak jaiotze izenarekin batera aitaren abizena eta segidan amarena jasotzen ditu. Ohiko izenei dagokienez, esaterako hauek lirateke: Joxemari, Asenxio, Migel, Pepita, Isidra, Manuel... Dena den, lehen eta oraingo ohitura da kaleko edo hiriguneko jendeak ez bezala, baserriko jendeak beste baserriren bateko norbait izendatzerakoan, bere bataio izenaren alboan baserriko izena ipintzearena, edo eta orain kalean bizi diren baserriko semeen semeak izendatzerakoan lehenik baserriko izena aipatzearena, ondoren baserriko semearena eta azkenik izendatu nahi den hori aurrekoarekiko semea edo alaba den zehaztea. Esan bezala hori baserri giroan gertatzen da soilik, hirigunean pertsonak izen-deiturez izendatuak baitira.

Izengoitiak gaur egun arruntak ez badira ere, gehienetan seme-alabek gurasoengandik eskuratu dituzte, eta haiek gertakizun edo bitxikeriaren baten ondorioztat, alegia, esaterako gure berriemate batek zehaztu zigun moduan, Ameriketara lanera joanagatik “amerikanua” izengoitia eskuratu zuen bere aitak.

Emakume ezkonduak aldiz gordetzen dituzte beren izen-deiturak.

- I-108. Gurasoen eta seme-alaben artean, osaba-izeben eta iloben artean, anai-arreben artean eta senar-emazteen artean erabiltzen diren izenak eta formulak. Familiakoan artean, ahaideen artean, haur txikiekin, agureekin, arima herratuekin eta espiritu edo jeinu mitikoekin erabiltzen den ohiko hizkera (“hika”, “zuka” edo “berorika”).

Hizkera ezberdinen erabiltzeak gaur duen izaera ez da arestian zuenaren parekoa, ezen “zuka” edo batzuetan “hika” nolana hitzegiten badugu ere, gure arbaso gertukoek hizkera ezberdinen arabera errespetuzko mailaketa finkatua zuten, hau da, apaiz, mediku eta maisuei “berorika” egiten zitzaienten, eta baita gurasoek aiton-amonei ere adin batez geroztik behintzat; aldiz, aiton-amonek gurasoei “zuka”, baita seme-alabek

guraso eta adinekoei ere, eta orokorrean ume guztieri; “hika”, famili-artearen erabiltzea da ohikoena eta baita anai-arreba edo lagunekin ere. Dena den, familia bakoitzak bere ohiturak ditu, eta gehienetan aipatu bezala gertatu bada ere, ez da izan jarraitu beharreko araurik.

- I-109. Etxearen eta familiaren oroipen historikoak (zuhaitz genealogikoa, gertaera handiak,...). Etxeari eta antzinako bizilagunei buruzko elezaharrak, eta gaztelu eta haitzuloekin zituzten lurpeko bideei buruzkoak. Arbasoen arimen bizilekutzat edo arima hauek sarri joan ohi diren lekutzat ere hartzen al da etxea? Arbasoenganako begirunea eta etxekoen berauenganako eginbeharrak. Noiz eskatzen zaie laguntza? Bizien eta hildakoen arteko elkartasuna. Urteurrenak eta hildakoen aldeko eskeintzak. Aitaldeko eta amaldeko familiak eta beraienenganako betebeharrak.

Arbasoen gertakariei buruzko gogoetak ugariak gerta badaitezke ere, ez dira oroitzapen argitan gogoratzen, baizik kontakizun edo ipuin moduan. Dena den, gerrateari buruzko gertakariak dira oraindik ere argi dirautenak gure berriemate gehienetan, eta bereziki garaian egin beharreko aldaketak eta saioak erasoak ekiditearren; Angel Elizaldek agertzen zigun,

garaiko "igorantzia" zer ote eta meta nahiz elurrez egindako errefujiotan gordetzen omen ziren bonbez babestearren. Kontutan behar da izan, ez airetik bakarrik baizik eta itsasotik ere erasoak gogorrak izan zituela Altzak. Era berean, Ameriketara nahiz kanpoko beste lurraldeetara joan zirenen inguruko gogoetak diraute, bai eta errepideen egitean parte hartu zutenena. Aipatu beharko genuke errepideez gain trenaren etorrera, gaitzesten bazuten ere, ugariak baitira honen inguruan sortu istorioak, ezen esate baterako, trenaren haserrearen beldurraz etxeratu arazten zituzten gazteak ilunabarraz bat.

Bestalde, berriemateetako batek eguratsak suposatu galerak gogoan ditu, hala nola, 1933an ekainaren 16an eta urriaren 22an jasan uholdeak, edo etxeak ere botatzerainoko indarra zuen haizearenak 1941aren otsailaren lehenengoan eta bestea, arras beldurgarriena, otsailaren hamabostean gertatu zena. Aldiz, 1956aren otsailean jasan izozteak bertan behera utzi zituen lurreko barazki eta jangaiekin batera, pinu, erramu eta gainontzeko landaretza gehiena ere.

I-110. Etxearen eta familiaren ohorea. Ahaideen arteko elkartasuna. Konplimenduak, bisitak eta opariak.

Ahaideen arteko zintzotasuna eta gizalegea. Liskarrak. Nola lortzen da bakezkoak egitea? Noiz jotzen dute famili kontseilura? Nortzuek parte hartzen dute famili kontseilu horretan? Familiari egin irainen mendekua. Nork eta nola burutzen du mendekua?

Ahaideen arteko elkartasuna handia bada ere, ez dago konplimendu zehatzik betetzeko beharrezkotasunik, baizik eta norberaren araberako kontzientziak eskatzen duena. Berdin gertatzen da liskarrekin, eta ez da beurak konpontzeko kontseilurik egiten edo egiten zenik gogoratzen.

- I-111. Ahaideak elkarrekin bizitzea. Oinordeko ezkondua gurasoen etzean jartzen al da bizitzen? Gurasoak hiltzean, anai-arrebek elkarrekin bizitzen jarraitzen al dute? Norenganaino hedatzen da famili elkarte hau?

Oinordekoa seme zaharrena izaki, ezkonduagatik ere baserrian biziko da gainerakoekin, ezen horrek errezten baitu gurasoak hiltzean titulartasunaren eskuratzea. Hala eta guztiz ere, seme zaharrena kanpoan bada, ondorengoak hartuko du baserriaren jabetza baldin eta horretarako gainerakoen adostasuna badago. Ondorengo hori gainera, baserrian aritzen den anaia

beharko da izan, bertan bizi baina kanpoan lan egiten dutenek diruz lagunduko dutelarik baserriaren mantenuan.

Orokorrean aiton-amonak izaten dira baserriko zaharrenak, arrunta gertatzen delarik famili-katea bilobenganaino hedatzea, edo eta hauen semeenganaino.

- I-112. Ahaideen ohiko bilkurak (herriko jaiak, Gabonak, hildakoen eguna, jaiotzak, ezteiak, hiletak). Nork gonbidatzen du? Nola egiten da gonbidatzea? Gonbidatuen eskubideak eta betebeharrak. Familiako oturuntza eta oturuntzako ohiturak.

Famili kideak bizi diren herriko jaiak direnean guztiak bildu ohi dira eta berdin antzekorik gertatzen da gainerako bilkurrekin, bai bataioak, ezkontzak edo bestelakoak direla, nahiz hauetan gonbidatu ohi den lagunik ere. Gonbitea, jaiak dagokienez, ez da zuzenean egiten baizik eta antzeko aitzakiarik egon den aurreko bilkuran geratzen da zehaztua. Bestelakoei dagokienez, bisitaren baten aitzakiz egiten da.

Jakiei dagokienez, gehienetan oilasko errea da ohitura nagusia eta horrekin batera arroza esnearekin su

berotan egin eta nahastuaz arroza loditu artean egiten delarik. Gonbidatuek ere ekartzen dituzte zenbaitetan jaki ezberdinak hauei laguntzeko.

Gaur egun, gonbiteak askotan postaz bidaltzen dira eta horen arrazoi nagusia, batetik erosotasuna bada ere, gonbidatu ugaritasuna badago tarteko. Otorlekua gainera, normalean etxetik kanpo izaten da, horretarako prestatua den jatetxeren batetan edo. Aipatu hala eta guztiz ere, jaietan burutu bilkurak oraindik ere mantentzen direla baserri gehienetan behintzat.

- I-113. Gurasoek seme-alabengan eta semeen emazteengan duten aginpidea. Aitona-amonenganako, gurasoenganako eta osaba-izebenganako begirune-ezaugarriak. Zenbat denbora irauten du gurasoen aginteak edo etxearekiko loturak? Ba al dago benetako emantzipaziorik? Osaba-izeba eta iloben arteko harremanak.

Arestian baserriko aginpidetza beti gurasoen esku izanagatik, gizonezkoaren ardurapean izaten ziren abere eta lur sailen inguruko salmentak. Aldiz, barazkien eta fruituen salmenta emakumezkoaren ardurapean zen. Bien esku geratzen zen astean zehar inguruko herrietan bateko “peria” edo besteko “plaza” zenean bertara joatea,

joanaldi hauek oinez eta gurdiz burutzen zirelarik. Lanaren banatze honek ordea ez zuen iragartzen irabazien banaketa, baizik eta dirua, elkarrekin gorde eta baserriko gastuei aurre egiteko erabilia da edo eta bien artean erabakitako modurik egokienean propietate berrien erosteko.

Dena den, eta aipatu badugu baserriko aginpidetza gurasoen esku zegoela, seme-alaben adintzearekin bat, beren eritziak garrantzitsu izango dira. Gainera, egungo egoerari begira, zenbait baserri semeren baten jabetzan dira, baina ez gurasoak hil eta oinordeko lez administraziaren arduradun direlako, baizik eta erositako dutelako baserriaren jabetza eskuratuz. Kasu hauetan dena den, gurasoen eritzia, etxeko beste partaideenarekin bat, jabe den semearenarekin batera kontutan hartzen dira. Era berean, seme-alabenganako aginpidetza hauen ezkontzearekin amaitzen bada ere, ordurartekoak, familiaren begirunea indartzeko balio izan du; famili artekoenganaino hedatzen den begirunea da, umetatik irakatsia zaiena, eta lehen nahiz orain, errespetu handiz betetzen da, izan ere, oso garrantzitsua baita famili egituraren egonkortasunerako. Beraz, eta nahiz baserrian bertan bizi ez, seme-alabek ez dute erabateko emantzipaziorik eragingo.

I-114. Ahaide izatearen ondorioak. Ahaideen arteko eskubideak eta betebeharrak, pertsoneri eta ondasuneri dagokienez. Hildakoen aldeko otoitzak. Laguntzari eta mantenuari buruzko betebeharrak. Ahaideen arteko abegikortasuna. Adin txikikoen tutoretza. Ahaideen eskuhartzea ondasunen administrazio eta antolamenduan. Eskubide eta betebeharraren garrantzia ahaide maila ezberdinetan. Ahaideen zorren ordainketa. Ahaideen aldeko lekukotasunaren balioa. Agure zaharren eta gaixoen egoera.



Kastillun baserria

Nahiz ahaideen artean laguntasuna arras barneratua izan, laguntza hori ez da eskubide edo betebeharrak gisa burutzen, baizik eta lehenago aipatu begiruneagatik. Laguntza horiek gehienetan diru eskasia edo alarguntza medio izaten dira, azken honetan bereziki ez soilik ahaideek baizik eta baita auzokideek ere lagundu ohi dutelarik (lurren zaintzean, haurren hezitzean,...). Gainera, baserrian gurasoak bakarrik geraturik eta baserriko lanetarako ezinduek baleude, seme edo alabaren baten etxebizitzaren inguruko beste etxeren batetara joan ohi dira bizitzera gehienetan, eta zenbaitetan seme edo alabaren etxera ere bai. Ahaideren batek eritasun larriarik badu aldiz, guztiak elkartzen dira eta ahal den neurrian laguntzen dute diruz, etxeko lanetan, lurren lantzean edo txikienen txikienen tutoretza lanetan.

Bisitak ugariak izaten dira, bereziki urrutien bizi direnen eskutik, eta honelakoetan, egun batzuek etxean geratzeko gonbitea egiten zaie eta joaterako ingurunea ezagutzeaz gain, bisitarien omenez bazkari bat egin ohi da gainerako ahaideen elkartzearen.

Zorrak, senide gertukoenen laguntzaz gaindituak izan ohi dira, eta horrela egitea posible ez denetan,

laguntzarik eskatzen da erakunde ezberdinetan, hala nola, banketxe, aldundi edo bestelakoetan.

- I-115. Ahaide aberatsek ahaide pobreekiko dituzten betebeharrak. Etxetik eta herritik urrun joandako ahaideekiko betebeharrak.

Ahaide aberats eta pobreen arteko ezberdintasun nabarmenik ez dute ezagutu berriemaleek beren familietan ez eta ezagutzen dituzten herriko beste norbaitenean ere. Dena den, lehen aipatu bezala, beharrean diren senideekiko nahiz etxearen ongizateko laguntzat, guztien esku izaten dira ahal bezain bat.

- I-116. Ahaideekin lotu familiaren ondarea edo ondasunak. Ahaiden eskubidea beraien baimenik gabe oinarrizko ondasunak familiatik irten ez daitezten. Familiak jabetzan dituen edo erabili ohi dituen ondasunak: lurrak, larreak, animaliak, lanabesak,... Familiak duen ondarearen balioa. Aitak sal al ditzake familiaren ondasunak bere emaztearen baimenik gabe? Senar-emazteak bakoitzak familiara ekarri edo bien artean erosi ondasunen jabekide al dira, ondorioz bien baimenik gabe ondasun hauek besterentzerik ez dagoelarik? Nola ikusi ohi da herrian ondasunen besterentzea? Oinarrizko ondasunak salduz gero,

salmentari buruzko erosketa-eskubiderik erabil al dezakete ondasun horiek hasieratik izan zituzten familiako senitartekoek?

Zuzenbide zibilaren baitan jabetza duen partaidearen esku geratzen da bere jabegoan diren lur edo baserriarekin nahi duena egiteko eskubidea. Dena den, ezkondurik badago, bien artean lortu ondasunen gaineko erabakiak bai eta lur sail nahiz etxearenak, bien artean izan ohi dira, normalean tratu hauek sailaren hobetzeko edo eraldatzeko izan ohi direlarik. Zentzu honetan, bien adostasuna beharrezko ikusten dute burutu beharreko edonolako aldaketaren aurrean.

I-117. Zein hitzarmen-mota da ohikoena ahaideen artean? Zein elkarte-mota? Neskameekin eta morroiekin dituzten harremanak. Familiako kideztat hartzen al dituzte neskame eta morroi hauek? Langileekin dituzten harremanak.

Hitzarmen edo elkarte betebeharrekorik egon denik ez da gogoratzen. Aldiz, morroi eta neskameei dagokionez, izan dira baserriak sekulan horrelakorik izan ez dituztenak eta alderantziz beste batzuk morroi eta neskame ugari aldiberean izan dituztenak. Beraiekiko jarrerari dagokionez ordea, famili-kide baten pareko

hartuak dira, gainerako kideekin batera beren eginbeharrak dituztelarik etxearen ordenamenduan. Beraz, ez da mantentzen hauentzako aparteko bizilekurik, baizik eta gainerakoekin batera egiten dute bizimodua, bai lotarako garaian logelak konpartituz, bai eta bazkarirakoan edo lanerako garaian lagunduz. Honenbestez, beren izendatzerakoan, bataioko izenez egiten da eta zenbaitaetan “izeba” edo “osaba” ere esan ohi zaie, honek argi uzten duelarik bere bizitzan nahiz heriotzean gainerako kideak bailiran agertuko direlako jarrera. Beraz, eta egun morroitzan lanerako inor behar izaten ez bada ere, oraindik bizirik diraute zenbait baserritan garai batean morroi gisa hartutako haiek.

Langileekiko jarrera egun nahikoa hoztu dela pentsa daiteke lehengoaren parean, izan ere, ohikoa baitzen alde zurretik hitzartu diruaz gain bestelako “saririk” ematea. Egun aldiz, diruk hartu duen izaera medio, ez da horrelakorik egiten nahiz behar bezain bestean laguntzen zaien beren lana arintzen, esaterako hamaiketako eskainiaz, edatekorik, ... Aipatu beharko litzateke gainera, garai bateko Donostialdeko tuberia eta bestelako hobekuntza lanak medio, zenbait baserritar prestatu zirela bertako langileekin batera eta idiak hartuta, zamak mugitzera eta bestelakoetan laguntzera.

I-118. Oinordekotza eskubideak ahaideen artean. Gurasoek testamentua egiteko askatasunik ba al dute? Zein muga ditu eskubide honek? Testamentuaren bidez ala, oinordekoa ezkontzen denean, ezkon-hitzarmenaren bidez egiaztatzen da oinordekotza? Maiorazkoa izaten al da oinordeko hori? Ahaleginak egiten al dira familiaren ondarea zatitu gabe gordetzen, testamentua hobetuz eta semeren bat edo alabaren bat etxeko oinordeko izendatuz? Honelakoetan zer ezkontsari ezartzen zaie beste seme-alabei? Dohaintzan aman ondasunen gozamenaren erdia gurasoei gordearazi eta hauek hiltzean ehorzketa eta hiletak, hilobiko argiak, eta eskaintzak eta erresponstuak ere ordainarazten al zaizkio seme edo alaba oinordekoari? Seme edo alaba oinordekoa ezkontzean, senar-emazte berriak gurasoekin etxe eta mahai berean bizi al dira, era honetan familia bakoitza edo familia elkartea, irabaziak eta galerak erdibana dituen, osatuz? Oinordekoak izaten al du anai-arrebak berarekin eduki eta mantendu beharrik, eta hauei, ezkontzean edo adin nagusitasunera iritsitakoan, diru kopururenbat eman beharrik? Familiako arbasoei dagokienez, zein izaten dira oinordekoaren betebeharrak? Familiaren ondarea zati berdinetan banatzen al da oinordekoen artean? Banaketa hau gurasoak bizi direla egiten bada, zein egoeratan gelditzen dira gurasoak

aurrerantzean? Sasiko seme-alabek eskubiderik ba al dute oinordekotzan?

Gaur egun zabalduago badago ere, lehen ez zen testamentu idatzirik ugari egiten, izan ere, oinordekoa nor izango, aldez aurretik zehaztua egon ohi zen. Oinordeko hori gehienetan seme zaharrena izan ohi da, baina ez du horrela izan beharrik, hau kanpoan edo badago, beste batek hartuko baitu. Zehaztasunik ez badago ere gainerako ahaideekiko, hauek ezkontzan ezkontsari bat eman ohi zaie, zeina gurasoak bizirik badira beraiek erabakitzen duten eta aldiz hilak badira jaso duten ondasunen arabera banatuko zaien. Beraz, ohikoa izaten da gurasoen ondasunak handituz joatea hauen heriotzaren ostean, gaur egun liskarrak edo bestelakoak medio banaketa gertatzen da besteak beste ez delako baserriaren kargua hartu nahi duenik, edo eta diru arazoengatik.

- I-119. Oinordekoa testamentuz izendatzen ez denean, ohikoa al da seme-alabetako bat, gainerako anai-arrebekin hitzegin eta erabaki ondoren , etxeaz arduratzea? Zer diru kopuru ematen zaie anai-arreba hauei beraien etxeetan bizitzen jartzen direnean? Nork esku hartzen du konponketa hauetan?

Oinordekorik zehazten ez denean testamentuaren bitartez, gehienetan baserrian eta baserriaz bizi den seme-alaba zaharrenaren esku geratzen zen baserria gurasoen nahia ere baserriaren mantentzea izan ohi zenez. Noski, aldez aurretik eta tirabirarik gerta ez zedin gainerako famili-kideekin eztabaidatzen zen eta beraiei diru kopuru hainbateko bat ematen zitzaien. Gaur egun ordea, honelako egoerek liskar ugari suposatu ohi dituzte, gehienetan haserre eta jabegoaren saltzearekin amatatzen direlarik.

- I-120. Senarra edo emaztea testamentua egin gabe hiltzen denean, zein egoeratan geratzen da bizirik den ezkonlaguna? Testamentua egiteko askatasunik ba al du? Ondasunez gozatzeko eskubiderik ba al du, ondasunak oinordekoari eman ondoren? Ahaideak ez direnen aldeko testamentua. Seme-alabarik gabeko osaba-izeben testamentua.

Ez da berdin izaten hil dena baserriko seme-alaba denean edo baserrira etorritakoa denean. Hildakoa baserriko bertakoa bada, alargun geratzen denak ez du izango ondareen gaineko eskubiderik ez eta testamentua egiterik ere, ondasun oro hildakoaren seme-alaben esku geratzen delarik. Hala eta guztiz ere, aurkakoa zehazten

ze duen ezkontza hitzarmenik ez denean, seme-alaben esku egon ohi da alargun geratu denarekiko begirunea eta errekonozimendua ondarearen adimistrazioan laguntzeko. Alderantziz ordea, hildakoa baserrira etorritakoa suertatuz gero, bizirik denak, bien artean lortu ondasunen erdira izan ezik, gainerako ondasun guztien gaineko eskubidea izango luke, eta beraz oinordekoa izendatzekoa bai eta testamentua burutzekoa ere.

Oinordekotzarako seme-alabarik ez den kasuetan aldiz, pontekoa izan ohi da ondasunak jasoko dituenak, baldin eta ez badago behintzat familian bertan gertuagokoa izan den beste seniderik.

- I-121. Adopzioa. Adopzioaren maiztasuna eta zergatiak. Norenganako joera izaten da haurrak hartzerakoan? Haurrak bataioan jasotzea eta beronen ondorioak.

Ez da ezagutzen adopzioan maiztasunik, eta gertatu direnetan, familikoren bat izan da gurasoak galduagatik edo bestelako arraiengatik adoptatu dena.

Senar-emazteen arteko harremanak



Kastillun baserriko Alkiza familia 1978. urtean

I-122. Aginpidea senar emazteen artean. Eskubide berdinak al dituzte senar-emazteek? Senarraren ahalmenak eta betebeharrak. Emaztearenak.

Etxe barruko lanetan nahiz umeen hezitzean emaztea izan ohi zen aginpidea zuena eta baita diruaren administraria ere baina horrek ez du esan nahi senarrak parte hartzen ez zuenik, izan ere eskubideak berdinak baitira biengan. Esan nahi dena zera da, banketxeetara joan-etorriak eta bestelakoak emazteak burutzen zituela, senarra ganadu eta lur sailen saltzeaz arduratzen zen moduan, baina horrek ez zuen esan nahi bakoitzak nahi bezala burutzen zituenik hauek erabaki nagusienak ez baitziren hartzen elkarrekin hitzegin aurretik, nahiz esan

bezala etxeko ardura emaztearen esku izan eta etxez kanpokoa senarrarenean.

- I-123. Zer iritzi du jendeak senarra emaztearen mendean egoteari buruz? Senar-emazteen arteko tirabirak: zergatiak eta konponbideak. Adeitasuna eta gizalegeak senar-emazteen artean. Zein hizkera erabiltzen dute senar-emazteek beraien artean?

Senarra emaztearen mende izatearen oso eritzi txarra izaten zen lehen, nahiz egun gauzak oso ezberdin gertatzen diren eta emaztearen agintzea ez den hainbestez gaitzesten.

“Ez da senar-emazterik aserretzen ez danik” erantzun digu berriemate batek. Tirabiren zergatiak gehienetan berdina izan ohi dira orain eta lehen, alegia, semeen lanaren gaineko ardura edo bertara ezkondua den emakumearekiko jarrera ezero-soak besteak beste. Konponbidea ez da etxetik kanpo bilatzen eta gehienetan tirabiran bertan ematen da, baldin eta bi aldeak beren eritzietan umilduz gero elkarren zergatiak ulertuaz. Honen inguruan gainera bada elezahar bat Altzan oso zabaldua dena eta honela dioena: “zeruan omen dago oi bat

aserretzen ez diran senar emaztientzako jarria utsik oraindik”.

Senar-emazteek zuka hitzegiten diote elkarri, baina errespetu honek berak agertuko luke elkarrekiko begiruneaz blaitutako adeitasuna, ez baita bestelako adeitasun agerpenik ematen bien artean.

Euskeraren erabilera ordea baserritarrek mantentzen badute ere, penatuak dira bere galera handia izan delako, eta entzuteko aukera aproposena meza nagusia izan ohi da, bere amaieran kanpoko aterpetan geratu ohi direlako elkarren berri ematen. Honen inguruan, Manuel Zapirainek bertso bat eskainia digu, honela dioena:

*"seireun urtetan pasiak gera
altzan etzala elizik
donostiraño juan bear zuen
entzun nai zuenak mezik
garai uraxe artu liteke
orain bertan ere pozik
etzan entzungo gaur entzuten dan
aña mekauen diosik."*

- I-124. Zein dira senarraren eta emaztearen eginkizunak familiako bizitzan eta etxearen administrazioan? Zein dira ezkontide bakoitzari dagozkion zereginak? Sexu bakoitzari dagozkion lana-tresnak.

Senarrak soro, zelai eta kanpoko lanak bideratzen zituen eta emazteak aldiz etxe eta kalekoak. Hau da, senarrak semeek adin jakin bat eskuratzearekin aipatu lanetarako hezitzen zituen eta aldiz emaztea, alaben lanez baliatzen zen etxeko lanak burutu eta kalera joateko, hala nola esnea etxez etxe banatzeko, plazan barazki eta fruituak saltzeko eta aldiberean baserrian ez diren bestelako produktuak eskuratzeko. Hala eta guztiz ere premia zenean lurrak goldatzeko edo barazkiak biltzeko, emakumenzkoak ere aritzen ziren kanpoko lanetan eta aldiz etxean beharrik zenean, famili berritan esaterako, senarrak burutu ohi zituen kaleko eginkizunak. Tolareak garrantzitsu izaki Altzako ingurunean eta zenbait baserrian bazirenez, halakorik ez zuten baserritarrak bertara biltzen ziren, eta lan honetan gizonezko nahiz emakumezkoak aritzen ziren.

- I-125. Senar-emazteen elkarbizitza lanean eta jaiegunetan. Emaztea senarrarekin esertzen al da mahaian?

Goizean biak elkarrekin jaiki eta gizonetzkoa ikuilura joaten zen behiak jaitsi eta bestelako garbiketak egitera, ondoren jaten emateko behin segan aritu eta “gurdi bat” edo “zama bat” ekarri ostean. Honen bitartean, emazteak etxeoak bete eta gosaria prestatzen zuen 9’30etarako gutxi gora behera, biak elkarrekin izaten zirelarik denborale honen baitan. Ondoren,



Bordazar haserria

emaztea kalera joan ohi zen bertako eginbeharrak egitera bai eta banketxeko kontura eguneratzera edo erosketak egitera, eta arto garaitan esaterako, emaztea kaletik igotzerako hamaiketako egin ohi zen “tragoxka” bat hartu eta baita arto jatea ere. Egonaldi honetan, bertso zaharrak kantatzeko ohitura ere bazen. Ondoren emazteak

bazkaria prestatu eta ordurarte gizona kanpoan aritzen zen baratzea edo lanean. Bazkaltzerako garaian gainera, senar-emaztea elkarren ondoan esertzen ziren eta amari jarraikiz guztiek Aitaren egin eta Aita Gurea erreztatzen zuten ondoren bazkariari ekiteko. Udara bazen, siesta egiten zen honen ostean eta negua bazen ordea, lan ugaria zenez, askotan emaztea senarrarekin irteten zen lurreko lanetan laguntzera. Senarrak perira joan behar bazuen, askotan ez zen iluntzerarte etxeratzen gainerako baserritarrekin traturik egin eta eguna pasatzen baitzuen kontuen berri jakitearren edo elkarri lurreko lanak biltzen noiz lagunduko zehaztearren, kontutan behar baita eduki, egungo mugikortasun errazteak nahiz eta lanerako tresneria berriek posible egin dutela honen gainditzea, baina lehenago tresneria eskasa zenez, elkarri uzten zioten lanerako beharrezkoa bazuen eta beraz arrunta zen idirik ez zuenari uztea edo eta lan tresna garestiak eskasak zirenez, batek eskuratu bazuen, gainontzekoeri uztea.

- I-126. Senar-emazteen ondasunak, familiarenak ziren ondasunez gain. Senar-emazteak ezkontzara ekarri ondasunen jabekideak al dira? Eskuratu edo irabazi ondasunenak ere bai? Ondasunen banaketa.

Ezkonkideek jaso ondasunak, bien arteko konpromezuan gertazen dira eta beraz ez da egiten irabazien banaketarik. Gainera, bien artean lortu irabaziak bienak izango dira eta normalean ez da arazorik izaten hauen administrazioan biek parte hartzen baitute. Dena den, izan da baserririk non seme-alabek, ezkonduagatik ezkontza-hitzarmenik egin duten gertatutakoak gertatuta ere, baserria beren familiaren baitan geratzea ziurtatu nahiez.

- I-127. Familiarekiko harremanak. Senar-emazteen gurasoen haien bizitzan izaten duten esku-hartzea. Senar-emazteen gurasoak izendatzeko erabiltzen diren izenak, eta hauei eskeintzen dizkieten laguntzak eta begirunea.

Aiton amonek izan dituzten ohiturak beren semeek jaso eta hein handi batean bilakatu badituzte ere, biloba gazteenak egungo gizartean heziak izanik, ohitura hauetatik arras ezberdinaduak diraute, eta horrela gertatzen da ez soilik jazkeran baizik eta baita hizkeran edo eta bazkaltzeko garaitan ere. Haurrek askotan ez dute etxean bazkaltzen, eskoletan baizik, eta gainera egunean zehar beste hainbat ekintzatan murgilduak egon ohi dira, baserriko giroan baino denbora luzeagoz egon ohi direlarik kaleko giroan. Dena den, egoera berri hauek

moldatze bat suposatu badute ere, oreka mantentzen da guztien artean eta elkarrenganako laguntasuna handia izan ohi da bateko edo bestekoa izanik ere.

Deiturei dagokienez aldiz, senar-emazteekiko beuren gurasoei, “amagin-aitagin-arreba” esan ohi zaie edo eta zenbait lekutan eta ezkontzaz geroztik denbora batetara, “aita” eta “ama”.

- I-128. Senar-emazteen harremanak beren jatorrizko familiekin: bisitak, eskubideak, betebeharrak, jaiak eta doluak. Kanpotik etorri ezkontidearen harremanak bere aitagarreba eta amagarrebaren etxean.

Behin ezkontuta, jatorriko familiarekiko erlazioa mugatua gertatzen zen, nahiz bertara joan ohi zen emaztea senideren bat gaisorik zenean laguntzera edo eta ospakizun egunetan bisitan. Dena den, egun ez da horrela gertatzen eta askotan izaten dira senar-amazteak beren gurasoenean koanaldi labur nahiz erosoetan parte hartuaz. Gainera kanpotik etorri ezkontideak etxeokoin bete behar zuen lana kontutan izanik, ez zen ongi ikusia gertatuko garai batean, maiztasunez bere jatorrizko baserrirako joanaldiak egitea, baldin eta esan bezala horretarako beharrik ez bada. Harremanak dena den

*estuak ziren, eta elkar ikusteak horrelako “argi bat”
pizten zuen bi alderdien artean.*



Bordazar baserriko Zapirain familia

I-129. Senar-emazteen harremanak familiatik kanpoko pertsona eta erakundeekin: herriko plazan, langile elkarte edo taldeetan, jolas elkarteetan, erlijio elkarteetan, erromerietan, azoketan,...

Lehenago moduan, gaur ere mantentzen da herriko jaietan bazkari-herrikoietara edo joatea, inguruko baserritarrekin elkartzeko asmotan. Egun gainera, bidaiatzeko erreztasunak medio, seme-alaben nahiz beste senideen bisitan joateko ohitura handia dago. Dena den,

lehenago ere izaten zen irteerentzako aitzakiarik, esaterako haurrak gazte zirelarik inguruneko mendietara joatea ohitura handikoa zen, eta bide batez mendialdean elkarrekin bazkaltzeko aukera zelarik, edo eta inguruko baserriko ezagunen batenean.

Elkarteak aldiz, arruntago gertatzen dira gazteagoak direnen artean, eta beraz, ez da estrainekoa asteburuetan edo jaiegunetan elkarteren bateko partaideak izan edo eta lagun taldean bestela irtenaldiak egin eta elkarrekin egunpasa burutzeari.

- I-130. Aitak eta amak seme-alabengan duten aginpidea. Bakoitzak duen aginkizuna haurren heziketan. Haurrek beraiek osatzen al dute beren ondarea? Nola?

Gurasoek semeen heziketan betetzen duten eginkizuna garrantzitsua izaten da, nahiz eskolara joateko garaia bitartean bereziki ama arduratzen den lan horretaz. Dena den, eskolara bidaliak izateko unea garrantzitsu izaten da, eta adin horretaz geroztik, baserriko lanetan ere lagundu ahal izateko, aitaren kargu izango da semearen heziketa eta amarenean aldiz alabarena. Behin eskola amaitu ondoren, lehen behintzat, semearen erabakitzen zuen zertan aritu, alegia, baserriko

lanetan aitarekin aritzea edo eta ofizioaren bat ikasten jartzea. Azken erabaki hau hartuta ere, baserrian laguntzen jarraituko du zenbaitetan lanean jai ere eskatuaz etxean lanez gainezka badaude. Alabak gehienetan etxean geratu ohi dira lanean ezkondu artean.

- I-131. Zeri egozten zaio antzutasuna? Zer bitarteko erabiltzen da antzutasunari aurre egiteko?

Antzutasuna emazteari egotzi ohi zaio, baina ez da arrazoirik ezagutzen antzutasuna dakarrenik. Zoritxarreko gertatzen da dena den, eta gehienetan honen soluzionatzeko apaizarenera joan ohi zen konseju eske. Hala eta guztiz ere, berriemaleek horrelakorik ezagutu ez badute ere, aurkakoa sufrituak direnak badira, hau da, lau seme izan eta apaizarenera jo beharra gehiegi izatea nahi ez zelako. Egun, medikuntza aurrerapenek gauzak asko aldatu dituzte.

- I-132. Emakumeak duen eginkizuna erlijioa eta sineskeria irakatsi eta praktikatzerakoan. Emakumea etxeko kultuan eta ohiko bizitza transmititzerakoan.

Erljioaren komunikatzean gehienetan emakumeak izan ohi dira nagusiki, hain zuzen ere eskolaratu aurreko

hezitze lanetan. Ondoren ere egun behintzat, beurak izan ohi dira kotxea izanik “dotriñara” eramaten dituztenak. Errezatzen ere irakasten zaie mezetan erantzun beharrekoekin batera.

Kultur transmititzeari dagokionez, ahozko transmisioa izaki, etxeko ohiturak amaren esku izaten dira, baina bestalde aitaren partehartzea handia da bai elezaharrak direla medio bai eta bertso zaletasuna medio ere, Altza beti gertatu izan baita bertsolaritzan oso iaioa.

- I-133. Adierazi aurreko galderek aipatzen dituzten ohiturak nolakoak ziren duela berrogei eta hamar urte eta nolakoak diren egun.

Lehenagoaren aurrean, eta lehenago adierazi dugunez, egungo gazteenen heziketa arras ezberdina gertatzen da, bereziki haurrak lehenago hasten direlako eskolan, eta gainera bazkaldu ere bertan egiten dutelako. Honek, kaleko lotura handitzen du eta bertarako bizimodua eraldatu du.

Baserriko bizimoduan aldiz, egun produktu baten lantzean edo bilakatzean ipinia da baserri bakoitza nahiz gero ere etxerako produktuak landu. Hau bereziki

kompetentziak bultzatu du eta atzerriko herriekiko harremanak. Beraz, baserritarrak, merkatal mugimendu handi bati egin beharko dio aurre baldin eta bere produktuen onuraz bizi nahi badu. Beraz, ez da jada mantentzen lehenago aipatu dugun lan tresneriaren mailegatzea, ez baitago orokorrean produktu berean ari diren baserri ugaririk auzo berean.

Atsedena eta garbitasuna

II-15. Eguneko atsedanak: atsedenaldiak, siesta, opor-egunak.

Lehenagoaren aurrean, eta lehenago adierazi dugunez, egungo gazteenen heziketa arras ezberdina gertatzen da, bereziki haurrak lehenago hasten direlako eskolan, eta gainera bazkaldu ere bertan egiten dutelako. Honek, kaleko lotura handitzen du eta bertarako bizimodua eraldatu du. Opor egunik ez zen izaten, ez behintzat seinalaturik, eta berdin gertatzen da atsedenaldiekin, ezen eguraldiaren arabera ez baita eguneko martxa berdin gertatzen. Beraz, siesta egitea ohizkoa bada ere, lan pilotzea den egunetan ez da egiten, eguneko argitasun ordu guztiak behar izaten baitira horretarako. Dena den, lanean direla egoten da “tragoxka” bat egiteko aukerarik berriz ere lanari gogor

ekitearren. Jaiegunetan ere lana izaten da nahiz meztatara joateak nolabaiteko martxa hori erldatzen duen, bertan biltzen diren lagun eta ezagunekin egonaldi bat egiteko aukera eskaintzen baitu. Bide batez, eta etxean umerik bada, irteera ugari egiteko ohitura dago bereziki inguruneko mendietara, hala nola, Erniora, Aralarra, Uliara, Igeldora, Jaizkibelera edo Aiako Harkaitzetara honek ere suposatzen zuelarik nolabaiteko atsedena eguneroko lanetan. Alde handia ikusten dute zaharrenek egungo egoerarekin konparatuz, egun bai baitago atzerrirako joera handia bai eta beren adinakoentzat ere irtenaldi antolatatu luzerik.

II-16. Gaueko atsedena: atsedenaren iraupena urtaroen arabera.

Nahiz eta esnatzeko ordua gehienetan seirak inguruan izaten den, ez da loaldirako ordutegi zehatzik, beti baitago gertakizunen bat gorabeherak dakartzana. Udarana ugaria denez, gaueko hamaiketan elizako kanpaiak jo eta segan ibiliak badira ondorengo egunerako lanak arintzearren. Bestalde, familia izan berritan, senarra joan ohi da kalera zamak hartuta, eta honek soroko lanen atzeratzea suposatzen duenez, zenbaitek oroitzen du egun horietan zehar hamaiketan oheratu eta

lauetan jaiki behar izatea edo eta ilargiko argitan metak egiten egiten ibili izana.

- II-17. Gorputzaren garbitasuna: bainuak, garbiketak eta egoskinen, xaboien eta gai kosmetikoen erabilera.

Baserrietan urik ez zenez, inguruko errekaen batetara joan ohi ziren ur bila eta ondoren “barreño” batian jarri epelduta, bertan haurrak bainua har zezaten astean bitan behintzat. Eskolan esan ohi zitzaaien haurrei bertara eta elizara zuri-zuri jantzita behar zutela izan, baina dirurik ez eta askotan ez zen izaten aldatzeko azpiko arroparik eta gainerakoa anai-arreba zaharrenengandik eskuratzen zuten gazteenek. Helduak berriz, astean behin garbitzen ziren normalean eta egun ere ohitura horretan dira, nahiz medikuarenera edo kalera joan behar dutenean txukuntzen diren. Urari laguntzeko aldiz, xaboi pastilak izaten ziren, gerora bestelako produktuak ugaritu badira ere.

- II-18. Familiako ospakizunak: gurasoen etxeko bilkurak, familiaren erromesaldiak, mendirako egunak.

Gurasoen etxeko bilkura nagusienak, hauen urtebetetze egunetan izaten ziren, baina gainerakoan ez

zen bisita ugarietarako joerarik. Aldiz erromesaldiak inguruko jai handietan izaten ziren, hasieran senar-emazteak bakarrik eta geroago seme-alabak zirenean haiekin batera inguruneko paisaiak zeharkatuz. Eskolan ziren haurrek ere egiten zituzten irtenaldi ugari mendira, baina gainerakoan ez zen egun seinalaturik horretarako. Gaurko egunez arrunt gertatzen da asteburuetan gehienetan senide ugari biltzea gurasoen baserrian arrazoi zehatzen beharrik gabe.

- II-19. Zein jokotan aritzen dira helduak kanpoan? Zeintzuk parte hartzen dute joko horietan?

Altzan beti izan da ehizarako zaletasunik, eta gazteenak ere desiratzen izaten ziren adina noiz izango ehizean aritu ahal izateko. Beraz, pentsa daiteke “tiro-platua” zela helduenen joku nagusia, txapelketa ugari izaten zirelarik bai herrian bertan nahiz ingurunekoetan ere. Harri-jasotzen, txingatan, segan eta pelotan aritzeko zaletasuna ere handia zen, joku hauetan gazteagoek ere parte hartzen zutelarik. Jokuen aitzakian gainera apustu ugari sortuak dira, honelakoetan festa modukoa egiten delarik apustua burutu beharreko lekuan inguruneko baserritar ugari biltzen delarik, kasu hauetan ez soilik senarrak baita emazteak ere eta seme-alabak.

II-20. Borroka saiorik antolatzen al da? Nolakoak izaten dira borroka-saio hauek?

Denek ez baina batzuek gogoan dituzte borroka hauek. Gazteek antolatzen zituzten beraien artean eta gehienetan, bi asaltotara izaten omen ziren eta irabazleak bi kanika, lau kanika eskuratzen zituen, orduko gazteek oso gustokoa izaten baitzuten kaniketan ibiltzea eta gainera arras politak izaten ziren, harrizkoak eta koloretakoak. “Txiba” jokoan ibiltzea ere oso gustokoa zutenez, partehartzaileetako batek txibarik ez bazuen, bere aurkariak bere txiba ipintzen zuen apustuan.

II-21. Harriak botaz egin ohi diren jokoetan aritzen al dira? Nola jokutzen da?

Zaharrenak ibiliak dira, eta gehienetan marka baten gainean jokutzen zen, hau da, nondik jaurtitzen zen kontutan izanik, partaide bakoitzak ahal eta urrunen bota behar dute harria, eta modu honetan egungo errekorren moduko markak ezartzen ziren. Gainera, kanpotik etorritako norbaitek gutxitzat jotzen bazuen lortutako marka hori, probatu zezan eskaintzen zioten, “bertako harriarekin” probatzeko.

II-22. Palanka-jokorik jokutzen al da? Nola jokutzen da?

Palanka jokorik egon denik ez da gogoratzen herrian.

II-23. Bolan jokutzen al da? Nola? Zein tokitan? Nola deitzen dira bola mota ezberdinak? Nolakoak dira birlak eta nola deitzen dira? Zer izen dute birlek bolalekuan duten tokiaren arabera?

Bolan asko jokutzen zen, eta ohikoa izaten zen gainera sagardotegietara Astigarraga aldera joatea eta hauetan gehienetan bolalekuren bat izaten zenez, bertaratzen zirenek erronda nork ordaindu jokutzen zuten. Dena den, inguruko beste herrietara, hala nola, Martutenera joaten ziren bolan jokatzera.

Bordazar baserrian gogoan dute oraindik nola bederatzi anaiek beste bi lagunekin batera bolaleku bat egin zuten Altzan, bertako pieza borobilak edo bolak nahiz “brilak” egiteko sagarrondoa erabili zuten. Jokatzeko moduari dagokionez, distantzia jakin batetik bola jaurtitzen zuten eta pistaren erdialdera ezker aldean brila edo birla motx bat jarria izaten zen hura jotzen zuenak

“txaparro” egiten zuelarik eta honenbestez galdu, nahiz ondoren birla guztiak bota. Birlek ez dute izen berezirik eskuratzen.

II-23bis. Pilotan jokatzeko al da? Zein joko-motetan jokatzeko da?

Nolakoak dira joko-mota hauek? Nolakoak da pilotan jokatzeko tokia eta nola deitzen da? Ba al dago antzina bezala mendietako zelaigunetan jokatzeko ohiturarik? Nola jokatzeko da: eskuz, palaz, xisteraz,...? Nolakoak izaten dira pilotak? Nola deitzen dira pilotak?

Zelaiguneetan jokatu denik ez da gogoan, baina pilotarako zaletasuna arras nabarmena izan da bereziki kaskotik gertu bizi zirenen artean, bertan kokatua baitzen frontoia. Gehienetan binaka jokatzeko zuten eta gutxiago banaka, baina nolana ere eskuz, partiduak 16 tanto betetzera izaten zirelarik. Pilotak aldiz beraiek eginak ziren artilez edo eta gero hor izaten ziren komeriak zein pilotak botatzen zuen hobekien hura aukeratzeko. Urrunago bizi zirenen artean badira baserriaren hormaren aurka eraikitako aterpean jolasten zirenak. Aipatu bezala eskuz jokatzeko ohikoa bazen ere, izaten zen palaz jokatzeko zuenik, eta ba omen zen Herrerako lagun talde bat xisteraz jokatzera igotzen zena. Egungo

frontoiak erabilera ugari eskuratuak ditu ohikoetaz gain, eta gazteen bilgune garrantzitsu gertatu ohi da.

- II-24. Aizkora-apusturik, palanka-jokorik, idi-probarik edo ahari-jokorik antolatzen al da? Deskribatu joko hauek, non eta noiz antolatzen diren adieraziz.

Palanka jokorik ezagutu ez bada ere, aizkora-apustuak, ahari jokoak eta trontza-apustuak nabarmen izan dira, lehen bezala orain ere jaietan baino egiten ez direlarik. Dena den, idi-probak dira Altzan mireспен eta afizio handiena sortu dutenak, eta egun Illarregi baserrian bizi den berriemate batek gogoan du nola arestian errekorrik bete zuen proba horietan. Egun oraindik mantentzen da Altzan zaletasunik eta izen handia du inguruko herrietan ere bertan ospatzen den baserriarren egunak.

- II-25. Eskujokorik egiten al da? Nola deitzen dira? Zer nolako arauak izaten dituzte?

Ez da Altzan ezagutu eskujokorik eta gaur egun ere ez da ezagutzen.

- II-26. Zein karta-joko jokatzten da? Zein karta-mota erabiltzen da kartetan jokatzeko? Noiz jokatzten da kartetan?

Gaurko egunez karta espainolak deituak direnekin jokatzten zuten, eta joku ezberdinak ziren gazteenetan nahiz zaharrenetan. Gazteenek normalean zazpi t´erdian edo hamaika t´erdian egiten zuten eta hamar zentimoko apostua izaten zen ohikoena. Adinekoak aldiz igandetan biltzen ziren musean, punttuan edo tutean aritzeko, eta gehienetan ardo botila bat, oilasko bat edo afari bat izaten zen apostuaren nondik norakoa. Festetan giro txarrik bazen ere elkartzen ziren baserriren batean eta bertan aritzen zen koadrila handi bat. Egun ere jokatzten da baina ez da egun senalaturen baten beharrik, herriko tzberna zenbaitetan arratsaldero topatu baitaitezke gizonezko helduak kartetan aritzen.

- II-27. Zein motatako herri-festak dira ohikoenak eta noiz ospatu ohi dira? Zein musika-tresna erabiltzen da?

San Pedro eta San Martzial egunez izaten ziren inguruko festa nagusienak eta bertan dantzaldiak garrantzi handia eskuratzen zuen, soinujolerik edo txistularirik ekartzen zelarik kanpoko herrietatik ere. Dena den, nahikoa izaten zen armonika, panderoa edo

bestelako instrumenturik jotzen zuen norbait tablaura igotzea festak arrakasta izan zezan. Dantzaldia bi zatitan banatzen zenez, lehenego arratsaldean egiten zen dantza “sueltoan”, eta ondoren afalostean goizaldeko ordubatak bitartean edo.

Herri-festa nagusia baserritarrentzat ordea, eta gaur egun lehen baino gehiago, Santa Isabel egunez izaten da, egun hori baitzaie baserritarrei eskaintzen. Egun horretan zehar, lehenago aipatu apustu eta jokoez gain, musika ere izaten da, gehienetan trikitilari bikotereren baten eskutik, edo Altzan hain barneratuak diren bertsolariak ere bai.

- II-28. Dantzaldi herrikoirik antolatzen al da? Zein dantzaldi? Nola jazten dira dantzariak? Zer nolako mugimenduak egiten dituzte? Zer musika erabiltzen da?

Dantzariak izaten ziren txistu eta atabalaz lagunduta, eta bertan dantzariak beren jantzi aproposak eramaten zituzten, alegia, blusak, gerrikoak,...Izaten omen zen gainera nolabaiteko premiorik sueltoko dantzan aritzeko. Dantza konkreturik gehiegi oroitzen ez bada ere, aurrekua eta zinta-dantza delakoa izaten ziren.

II-29. Izaten al da joko edo festa berezirik emakumeentzat?

Ez da izan horrelakorik, edo ez behintzat zuzenki emakumezkoentzat den joko edo festarik gizonezkoekin gertatzen den moduan baina dena den, aurreko galderan aipatu zinta-dantzan adibiderako emakumeak izaten zuen garrantzia gehien.



Bordazar baserriko Zapirain anaiak: ezkerretatik eskubitara, Juan Jose, Joakin, Juan Cruz, Xalbador (eserita), Manuel eta Joxe Mari.

4.- Epilogo. Manuel Zapirainen gogoetak

Bukatzeko, Manuel Zapirain, Bordazar baserriko semeak, honelako gogoeta utzi zigun idatzita, galdeketaren azkeneko orrialdearen atzekaldean. Gogoetak, bertso batzuk ere erantsita zituen, eta horrela, bere balioen komentziturik, berak idatzi digun bezala, bere testigantza transkribitu egin dugu soilik. Eskerrik asko Manuel.

"Azkeneko orri au nere kapritxo batekin beteko det. Nik Errera ta Altza nola ezagutu nitun gutxi gora bera adieraziz. Nere ezagueratik asi ta gerrara bitarte oso aldaketa gutxi egin zuen. Ni amazapi urterekin Errerako Lertxundi Zalduan egur almalzen lanian asi nitzan beste bi anai zarraguak an ari ziranta aiek eramane niñuten, egunian 9'75 irabazten gendun Tantarrenen bazkaltzen gendun egunian 1'50 pagatuz. Errera dana euskalduna zan, etzan erderarik entzuten kalia ia. Erreran orduan ziran tabernak. Ango nagusia Julio kastillanua zan gizon jator askua, Pasaian Antxo aldera, aldapan Mirakruz aldera, bar Txiki, barla Piña orain sozidadian kantonean dagon karnizerian tokian, Zubipe Tantarre or goian, gero Txingurrin sagardotegia. Peñan okindegia or zan botika tokia ere bai Sarasolan ferreteria o armeria Kasaresen agoztegia, iru egur almalzen ziran Kompañia de Maderas. Fernando Nikolas, ta gu, Peñaneko zabal ua eliza aldera etxe zar bat sasiak artua ezagutu nuen. Gu larunbatetan ta

Txingurrin gelditzen ginan zer o zer, jende asko ibiltze zan an bai erdera edo gallegua asko entzute zan arrantzale jendia. Gure ibilbideko baserriak berriz Peruene Esteban Bandrexena or zubipean gero Txingurri, Larratxo errekan eskubitik zubi bat zuela, ezker aldera egalian Larraundi gurdi bide xar bat askotan gañetik aienak edo sasiak artua, ortik gora Etxeberrira ateratzen giñan mendi birexigor batetik, beste batzuetan Zubipetik gora eskalletan Lardi txiki, Kasonon barrena, Altzako plazara. Altza berriz dena baserri ezagutu nuen bi etxe ziran baserri etziranak bat Txurdin, bestia Aizpurutxo, emen etzan erderik entzuten bi taberna ziran, bat Denda berri, bestia Martillun. Erreratik asi ta Altzara Tantarrenetik gora, sastrian arrobia, Lardi baserria, Oleta aldian Kosta Etxeberri, arizti bat bazen egal ortan, gorago Arria zar bere terrenuakin, kamiuan eskubira Arria berri, ezkerreta Matxikan Santa Barbaran ermitabat bazan bide exkiñan. Guk arkaizt txikitik begiratuta, zer ikus ikusten gendun dana, sagasti arto zelai soro dena berde, jende berria bota ziguten kanpotik, nunbait sartu biar ziran, erreztasunak jarri zituzten gañetik, dirua tarteko izaten da danian, lenbiziko barrio San Isidro egin zuten, gero Santa Barbara ta dana illaran orain dagoena iritxi arte, guk aldaketa au ikusi degu kosta zaigu bañan irentsi degu. Orain leku politak ikusten dira eguzkiak jotzen du, lañu beltzak ageri dira, badirudi itzal gehiago datorrela. Nire osaba batek orain eunbat urte jarritako bertxo batzuakin bukatzen det"

Ai gure antziñako
Guraso nobliak
Zituzten legiak
Guk hainbeste trabata
Fetxarik gabiak
Jarri dituztelako
Trena tranbiak
Aurrerapena dala
Uste du jendiak
Ondoren datozenak
Ez dira obiak

Orain eunbat urteko
Zenbait gizon abill
Ez baziraden ill
Bat txoratu liteke
Munduan balebill
Emengo tren ta tranbe
eta auto mobil
Itza berriz alambrez
Noranaira pil pill
Lengo bidez gezurra
Besterik ez dabill

Tren ta trambe biriak
Ikusteko emen
Zaleturik geunden
Izan ere alako
Jornalak al zeuden
Iru edo lau pezta
Irabazi arren
Bizioz bete gera
Zorrak berriz gallen
Askotan gastatzen da
Kobratu baño len

(au nik diot)
Eunbat urte inguru
Dirade jarriak
Arturik neurriak
Irikiko balitu
Berriro begiak
Esango luke ikusiz
Gaurko familiak
Eta munduan zear
Istillu larriak
Beste eun urterarte
Ai zer komeriak